

IKASBARREN IMH SARIAK BANATUKO DIRA MARTXOAREN 27AN · GEHIGARRIA GAZTIA NAIZ BARREN  
KULTURA MUSKILDIKO DANTZARIAK PLAZA HANDIAN

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko martxoaren 21a/XI. urtea/439. zkia

# Barren

ASTEKARIA



e  
i  
n  
b  
t  
o  
u

Ezkertiar eta abertzaleen herri  
plataforma sortu da Elgoibarren





# AB1ADURA HAUNIDIKO URTE BATEN KRONIIKA



**Pako Aristi  
Mikel Markez**

**Martxoak 28,  
ostirala  
gaueko 22:15ean  
MUSIKA ESKOLAKO  
AUDITORIOAN**

**SARRERA DOAN**

Antolatzaileak:



Euskara  
Saila



Babeslea:



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

# ZEZEN-B1DE AUTO ESKOLA

**San Frantzisko, 43 -1. solairua**

Tel, 943 742 720  
20870 ELGOIBAR

**ordutegi berria**

1 0:00etatik-1 2:30era

1 5:00etatik-20:30era

**Ego Gain, 4 behea**  
(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 455 • 20600 EIBAR



# 40 URTE 40 ISTORIO

10 ELGOIBARKO IZARRA



## Euskal Dantzak

Oker ez bagaude, 50eko hamarkadan Elgoibarren zeuden dantza talde gehientsuenak elizari lotutakoak ziren: luistarrak, hijas de Maria eta beste batzuk. Eta Elgoibar Dantzan liburuan irakurri dugunez, elgoibartar batzuk Erromako San Pedro Plazan egin zuten dantzan 1957ko abuztuaren 24an. Data esanguratsua elgoibartarrentzat.

Baina, 50eko hamarkadaren amaiera aldera, dantza taldeak kultur elkarten eskuetara pasatzen hasiko dira. Ongarri Kultur Elkarteak adibidez, 1959ko uztailan Santa Ana kalean aurkeztu zuen bere dantza taldea. Gainera, Ongarri taldea arduratu zen soka-dantza 64. urtera arte mantentzeaz.

1964an, berriz, estreinako dantza tradizionala sortu zen Elgoibarren: Elorra dantza taldea, hain zuzen ere. 1968an aurkeztu zuten euren burua talde moduan eta 1972an egin zuten soka-dantza azken aldiz. Urte honetan desagertu zen taldea.

Azkenik, 1964 urtean Elgoibarko Izarrak bere lehen dantza taldea aurkeztu zuen. Umeen dantza taldea zen. Garai hartan Euskal Jaiak edo Haurren Jaiak indar handia hartzen hasi ziren. Elkarteko dantzariak inguruetako herrietara joaten ziren, eta dantzarien gurasoak ere lagun izaten zituzten. Elgoibarren 64an egin zen estreinako Euskal Jaia. Jaialdia handia izan zen eta, dantzarietz gain, kantariak eta bertsolariak ere hartu zuten parte. Sebasek esan digunez, "gogan daukat Urtia aldia ikurriña jarri zebela eta kristoren zalaparta izan zala herrixan".

Bestalde, euskal jaietan ez ezik, San Anton Egunean ere Odeon antzokian egiten zen jaialdian parte hartzen zuten Elgoibarko Izarrako dantzariak.

*Felix Etxeberria eta Imanol Larratiaga*

iritzia



## Aznar, pozik

Astelehenean, egunkari bateko lehenengo orrialdean zetorren argazkiak beste edozer gauzak baino argiago erakutsi zidan Iraken krisiaren benetako zentzua. Hantxe agertzen ziren hiru lagunak, irribartsu begiratzen zioten kamerari. "Hementxe gaude", zioten haien begiradek, "mundua salbatuko duten hiru mosketariak gara". Blair, Bush eta Aznar. Horrela zeuden, ordenean, bata bestearen ondoan. Aita, semea, eta espiritu santua. Mundua salbatuko duen hirukoa.

Detaile batek, huskeria batek, atentzioa eman zidan. Bush-ek, Aznarren sorbalda gainean zeukan pausatuta eskua, nire lagun mina'edo, adierazi nahiko balu bezala. Eta Aznar, bera zen argazkian eskumako aldean zegoena, munduko potentziarik handienaren ondoan zegoelako oilarra bezain puztuta.

Harro egongo da, ez daukat dudarik, bai Bushen ondoan egoteaz, baita torturatuak torturatzaile direla esaten duten epaileen ondoan egoteagaz ere.

Eta are harroago egongo da, pozarren esango nuke, Auzitegi Gorenak hartu duen erabakia dela-eta. Espainiako justiziarentzat HB eta ETA gauza bera dira, eta horrek ilegalizazioa merezi du. Horregatik dago Aznar pozik. Horregatik, eta aurrerantzean Bush-ek egingo dizkion mesede eta opari guztiengatik ere.

Ainhoa Lodoso

Kexak .....	5
inOtZ MotZ .....	6
gehigarria .....	11
kiROIak .....	20
aGenda .....	24



## PATRONALAK HILTZERA KONDENATZEN GAITU

Lan istripuak dira gaur egun lan merkatuaren latzaren islada mingarriena. Etekin enpresarialen izenean, langileok izugarrizko presiopean lan egitera behartuak gaude. Dirua beste legerik ezagutzen ez duen gizarte honen izenean, irabaziak langileen segurtasuna baino garrantzitsuagoak dira, etekinak langileen eskubideen gainetik daude, baina... Heldu da garaia! Salatzeko garaia. Aurten 6 langile hil dira jadanik haien lanpostuetan, iaz 142 euskal langile izan ziren bizitza galdu zutenak, 2001ean 121, 2000n 148 eta abar luze horren aurrean badugu zer esan, onartezina delako oinarritzko eskubidea den lan egite horri beldurra izatea, bueltan etorriko garen ezjakintasanak kontsumitzen gaituen bitartean. Eta egoera honen aurrean, argi dago diruz ase dabilzan enpresariak, edota begiak estaltzen dituzten politikoa ezberdin eta administrazioek, baita langileen trafikatzailak diren ABLEK ere ez dutela ezer gutxi egiteko asmorik, egoera hau mantentzea ez bada haien interesei kasu eginez. Beraz guri dagokigu salaketa egitea, guri dagokigu erantzuna ematea, zeren, heldu da garaia! Konponbidea bilatzeko garaia. Azken finean gure bizitza da jokoan dagoena eta geu izango gara egoera hobetzearen eta errealitatea aldatzearen bidean sistema kapitalistari hortzak erakutsiko dizkiogunak.

Elkartzen Taldea

## MENDAROKO ALKATE JAUNARI

Urtarrilaren 28an ondoko idatzia aurkeztu nuen Mendaroko Udaletxean kexa modura :

"Mendaro Telebistako langileekin izan ostean, Urriaren eta Azaroaren Telebista honek egin zituen Errealaren partiduen emisioaren (Ikusteko ordaindu beharreko partiduak doan eskainiz) arduraduna zein den, Mendaroko Udaletxean galdetzeko esan didate .

*Zein izan zen beraz legez kanpoko jarduera hori aurrera eramateko erabakia hartu zuena?*

*Partidu haien emisio publikoagatik, Mendaroko Udalari isun gogorrak jarri ziezazkioketen, ez da hala?*

*Mendaroko Herriari erantzun publiko bat zor zaio."*

Bi astetara, erantzunik jasotzen ez nuela eta, idatzi berbera luzatu nuen berriro ere.

Lehenengo idatzia sartu nuenetik hilabete luze pasa zenean, Udaletxera bertaratu nintzen zer gertatzen zen jakiteko asmoz eta langile batek zurekin telefonoz egon ostean "lanpeturik dabilela eta astia duenean erantzungo dizula" esan zidan.

Beste aste bete inguru ere pasa da harrez geroztik eta oraindik ez dut erantzunik jaso.

Jakinekua da, arduraldi edo dedikazio osoa duzula Mendaroko Udaletxean, hau da, Mendaroko Alkate izatea dela gaur zure ardura profesional bakarra. Hori dela eta zure denbora preziatu horretatik ordu laurden bat eskatu nahi nizuke nere galdera hauei erantzun publiko bat emateko. Eskerrik asko.

Enetz Ezenarro Arriola  
15386270-Y

# Urruzunoren begi ezkutua

## Dantzan



Gauaren iluntasuna etengabe hausten zuten argi izpi distiratsuen artean dantzan, aingerua zirudien neskailak.

<sup>411</sup> 'Inguruko zarata ozen eta durunditsua leuntzen zuten bere mugimendu armonikoek, zarata hura ia musika bihurtuz, eta hanka punta ttipiez eginiko jauzitxoek lurreko dardarak xurgatzen zituztela ziruditen.

Ballet-a atsegin izan zuen beti, telebistan ezkutuan ikusi zuen egun hartatik pasio bihurtzeraino, eta gau hartan pasio ezkutu hura kanporatzea besterik ez zion eskatzen gorputzak. Agian, bere heziketaren kontra ziholako, bere munduaren kontra. Agian, gurasoen hitzak heriotzak jan eta jadanik ezerk inporta ez ziolako. Edo agian, bonba erorketen artean dantzatzeak segundu batetako hilezkortasuna emango ziolako, iruditzen baizitzaion ballet-eko dantzari haiek pertsonak baino gehiago zisneak ziruditela, zerurantz hegan hasi baino segundu bat lehenago...

Iñigo Otaño

## ASTEKARIA

# BaRRen

Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
943 74 41 12  
Publizitatea:  
943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04  
E-posta:  
[barren@topagunea.com](mailto:barren@topagunea.com)  
Helbide informatikoa:  
[www.topagunea.com/barren](http://www.topagunea.com/barren)  
ARGITARATZAILERA  
Elgoibarko Izerre

LAGUNTEAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILERA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Uxue Alberdi PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILERA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peilli Uriguen KOLABORATZAILERAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburitik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

E

ELGOIBARKO IZARRA  
Zi1, 1.11. ELIALSEA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



rIP kutxa  
esker

1DANOBAT  
101 LINAS XERRAMIEHLA

fr:vo o  
GRUPO DANOBAT

FITARTA

## i?vmaclax



• Gazte batek idatzi digu honako mezu hau: "Herriko **Antzokiko arkupean Gernika kuadroa pintatu dutenak txalotu nahi ditut**. Benetan ideia ona begitantzen jata eta gainera oso lan ona egin debe. Zorionak!"

v



• Emakume talde batek **Haizea Emakume Taldea txalotu nahi du, Emakume Langilearen Nazioarteko eguna zela-eta, antolatutako ekintzengatik**: "Ekintza guztiak oso ondo egon ziren, eta gure partetik, urte osoan zehar era honetako ekintzak antolatuzera animatu nahi genituzke".

• San Roke auzoko bizilagun batek, **Pista Beltzeko zabor kontenedoreak dauden tokian, plastikoa birziklatzeko kontenedorea falta dela** adierazi digu: "Etxean zakarra banatu eta sailkatzen saiatzen gara, eta gero ez daukagu etxe ondoan plastikoa birziklatzeko kontenedorerik. Birziklatzea denon lana da, eta Udalak erraztasunak jarri beharko lituzke".

• Gizonezko batek azaldu digunez, **San Lorentzoko parkean euria egiten duenean potzuak egiten dira**: "Guraso asko joaten da San Lorentzora beren seme-alabekin, eta euria egiten duenean, parkean sekulako potzuak egiten dira. Gainera, txirristada egoera kaxkarrean dago, eta umeez bizkarrean mina hartzen dute. Tokatzen zaionari San Lorentzoko parkea apur bat zaintzeko eskatuko nioke".



## Einbiou ezkertiar eta abertzaleen plataforma aurkeztu zuten martxoaren 15ean

Autodeterminazioa, eskubide demokratikoak eta ezkertiar ikuspegia dira plataformaren oinarriak

Joa zen martxoaren 15ean. Einbiou ezkertiar eta abertzaleen plataforma berria aurkeztu zuten Elgoibarren. Txalaparta doinuekin hasi zen ekitaldia, eta ondoren, gizarteko zazpi sektore (euskara, gazteria, nekazaritza, presoen familia, emakumeak, langileak eta gazteria) ordezkatzeko pertsonak, Einbiou hitza osatu zuten hizkiz hizki. Euskal Herriak zazpi probintzia dituen bezala, zazpi pertsona hauek izan ziren aurkezpen mahaian eseri zirenak, eta dantzariak aureskua eskaini zieten.

Einbiou plataforma elgoibartar talde batek eginiko hainbat bileretatik sortu da. Herri desberdinetan ezkertiar plataformak sortzen ari zirela ikusirik, Elgoibarren ere, gauza bera egitea erabaki zuten.



Plaza Handian aurkeztu zuten Einbiou plataforma.

### Plataformaren oinarriak

Hiru oinarri nagusi izango ditu Einbiou plataformak. Autodeterminazioaren aldeko konpromisoa, eskubide demokratikoen falta salatzea eta ezkertiar ikuspegia. Honekin batera, Einbiou plataformatik

ondorengo baloreak aldarrikatzen dituzte: "Esparru sozioekonomiko eta laboral propioa aldarrikatzen dugu, genero berdintasuna arlo guztietara zabaldu nahi dugu. Ondasunen banaketa desorekatuak sortzen dituen ezberdintasunak gainditi eta gure lurraren baliabideak modu orekatuan erabili eta zaindu nahi ditugu. Mundu mailan inposatu nahi den eredu sozial eta ekonomikoak dakartzan injustiziak salatzen ditugu". Einbiou plataforma, lantaldea ez ezik, eztabaida gunea ere badela adierazi zuten: "Plataforma aktiboa

gara, eta herriko ekintza guztietan presente egotea da gure helburua".

Aurrerantzean ere bilerak egingo dituzte, eta erabaki beharreko lehenengo gauza, maiatzeko Udal Hauteskundeetara aurkeztuko diren edo ez izango da.

## Elgoibartarrak fin aritu ziren Elgoibarko auresku eta Soinu Zahar Txapelketan

Julen Konde eta Ander Aranbarri bigarren eta hirugarren postuan sailkatu ziren hurrenez hurren Elgoibarko II. Auresku eta Soinu Zahar Txapelketan. Bi elgoibartarrek A sailean (7-11 urte) hartu zuten parte. "Abarketak" eta "Agurra" piezak dantzatu zituzten zapatuan, Herriko Antzokian. Mikel Otegi donostiarra izan zen irabazlea. Nesken mailan 3 oiartzuar izan ziren onenak. Nora Hadi izan zen elgoibartarrik onena lortutako 4. postuari esker. Jaione Maguregi 6. postuan eta Ane Gorriti 7.

postuan sailkatu ziren. Domekan B sailekoen (11-15 urte) txanda izan zen. Mutiletan Alexander Arrillaga irundarra nagusitu zen. Nesken mailan 19 parte hartzaile izan ziren eta Lezoko Garazi Lekuonak dantzatu zuela hobekien erabaki zuten epaileek. Maila honetan 9 elgoibartarrek hartu zuten parte: Dorleta Fernandez (5), Miren Ramos (6), Elorri Irusta (8), Gorane Gonzalez (9), Ane Belza (10), Garazi Konde (12), Melani Lozano (14), Janire Gorriti (15) eta Ane Astigarraga (18).



Larunbatean parte hartu zuten bost elgoibartarrak, tartean Julen Konde (2. postua) eta Ander Aranbarri (3. postua).



## Argi Ta Garbi energia berriztagarrien elkarteak sortu da

Argi Ta Garbi energia berriztagarrien erabiltzaileen elkarteak sortu berri da. Landa inguruko jendea dago sartuta elkarte honetan, besteak beste, ustiapen kostuak gutxitu nahi duten edota beren basenitara argi indarra eraman nahi duten baserritarrak. Energia berriztagarrien erabiltzaileei informazioa eta aholkua ematea da elkartearen helburu nagusia, eta aldi berean, administrazioaren aurrean erabiltzaile hauen interesak babestea eta ordezkatzeko. Energia berriztagarrien ahalmenak, arazoak eta egungo egoera aztertzeko jardunaldiak antolatu dituzte. Apirilaren 5ean eta 12an izango dira arratsaldez bakarrik, Elgoibarko Aubixa baserrian. [zena aurrez eman behar eta doanekoa da. Izena emateko edo informazio



gehiago izateko: 943 60 37 04 telefono zenbakira deitu edota ondorengo webgunea kontsultatu [www.argitagarbi.com](http://www.argitagarbi.com).

## Galiza Kultur Etxeak txapapotearen kalteei aurre egiteko jaialdia antolatu du

Euskal Herri guztiko Galiza etxeek sortu dute "Nunca Mais-Sekula ez berriro" plataforma, txapapoteak sortu dituen kalteei aurre egiteko asmoarekin. Elgoibarko Galiza Kultur etxeak jaialdi bat antolatu du elgoibartarron solidaritateari dei egiteko. Zapatuan, martxoaren 22an, izango da Ikastolako frontoian 22:30ean. Bertan, Barakaldoko gaiteroek, Eibarko rumberoek eta Duo Plaentxi taldeek hartuko dute parte. Bestalde, Galiza Kultur Etxeak txapapotea biltzera joateko espedizioa antolatu du, martxoko azken astebururako. Helburua, Galiziako hondartzetako txapapotea biltzea da. Elgoibartar guztiak gonbidatuta daude, eta interesatuek Galiza Etxeak Urasandi auzoan daukan egoitzan eman dezaketeko izena (943 74 10 03). N.A.Naren fotokopia eraman behar da.

## Euskaltelek 2004. urterako jarriko du martxan zuntz optikoaren sarea Debabarrenean

Euskaltelek jakinarazi duenez, 2004. urte amaierarako zuntz optikoaren sarea etxeetan erabiltzeko prest izango da Debabarrenean. Zuntz optikoa informazio gizarateko zerbitzu berrien artean garrantzitsuenetarikoa da. Sistema honi esker, kable bidezko telebista, telefonoa eta internet eduki daitezke, medio bakarra erabiliz. Elgoibarren baimenak sinatzen ari dira, eta lanak berehala hasia espero dute. Industria mailan, bestalde, eskualdeko hainbat enpresek erabiltzen dute dagoeneko zerbitzu hau. Elgoibarko Arriaga eta Olaso industrialdeetan zuntz optikoa erabiltzeko moduan dago, eta Albitzuriko Poligonoan azpiegitura guztiak prest daude sarea martxan jartzeko.

## Bea Egizabal ipuin kontalaria izango da datorren martxoaren 27an liburutegian

Aurtengo irakurketa suspertzeko kanpainaren barruan, etxeko txikiak liburutegirako bidea ikas dezaten, hainbat ekitaldi antolatu ditu Udal Liburutegiak. Joan zen otsailaren 27an egin zuten "Txikitekaren" lehenengo saioa, eta datorren martxoaren 27an izango da bigarrena. Oraingo honetan, Bea Egizabal ipuin kontalaria eskainiko du emanaldia. Arratsaldeko 17:30etan 2 eta 3 urteko umeentzako saioa eskainiko du, eta 18:00etan 3 eta 4 urtekoentzat. Datorren apirilaren 23an Liburuaren Eguna denez, lehiaketa bat antolatuko dute, eta maiatzean Peio Añorga ipuin kontalaria etorriko da Elgoibarko Udal Liburutegira.



## Juliana Zubizarretari omenaldia egin zioten Azpeitian

Joan zen igandean, martxoaren 16an, ondo merezitako omenaldia jaso zuen Juliana Zubizarreta panderoa joleak. Azpeitiko kiroldegian EITBk urtero antolatzen duen trikiti jaialdia aprobetxatu zuten antolatzaileek 93 urte bete berri dituen Julianari omenaldia egiteko. Juliana Elgoibarko Armaixta baserrian jaio zen 1910ean, eta trikiti eta panderoa beti izan ditu lagun. Omenaldi ostean familiakoek egin zuten afarian ere, gustura asko astindu omen zuen panderoa Julianak. Erretratuan familiakoek erregalatutako panderoa eskuan duela ikus dezakegu.





## ESKOLARTEKO KIROLAK

### AGENDA

Martxoak 22, 4. Jardunaldia

#### SASKIBALOIA, Ikastolan

- Benjaminak ■
- 10:00 Ikastola D- Pilar C
- 10:30 Herri Eskola A- Pilar A
- 11:00 Herri Eskola C- Ikastola B
- 11:30 Ikastola E- Pilar D
- 12:00 Herri Eskola B- Mendaro A
- 12:30 Ikastola A- Ikastola C

#### FUTBOL 7, Mintxetan

- M Alebin mutilak M**
- 10:30 Herri Eskola A- Ikastola B
- 10:30 Ikastola A- Ikastola B
- 11:15 Mendaro B- Pilar A
- 11:15 Pilar B- Ikastola C
- M Alebin neskek M**
- 12:00 Ikastola A- Ikastola B
- 12:00 Herri Eskola - Pilar A
- Pilar B (Atsedena)

#### ESKUBALOIA, ikastolan

- **Infantil mutilak M**
- 11:15 Ikastola B- Pilar A
- 12:00 Ikastola A- Insti A
- Insti B (Atsedena)
- **Infantil neskek**
- 9:45 Ikastola B- Pilar A
- 10:30 Ikastola A- Insti A
- Pilar B (Atsedena)

## Elgoibar Ikastolak ikasleen gurasoentzako ikastaroa antolatu du

Edex taldearen laguntzarekin, Elgoibar Ikastolak ikasleen gurasoentzako ikastaro bat antolatu du. Ikastaro hau bi taldetan banatu da, D.B.H. 1-2 alde batetik, eta D.B.H. 3-4 bestetik. Talde bakoitzak hiru saio izango ditu, eta bertan, gazteak, drogak, familia erlazioak, gaiak landuko dira. Hizlaria **Hilario Garrudo** psikologoa izango da. Hitzaldiak Ikastolako liburutegian izango dira, astearte eta ostegunetan arratsaldeko 18:30etatik — 20:30etara.

## 1151111 Sariak banatuko dira martxoaren 27an



Datorren ostegunean, martxoaren 27an, IMH Sarien 1. Edizioa ospatuko da. Ekitaldi honetan, ikasle ohi aipagarriena, 2002-03 ikasturteko ikasle bat eta Fabrikazio Arloko beste ikasle bat sarituko dira. Lehenengoak IMHko eskultura bat jasoko du, eta ikasleek, 1.200 euroko ikasketa poltsa bana jasoko dute. Ekitaldi honen helburua, ikasleak lanbide heziketako zikloetara bultzatzea da, batez ere, fabrikazio alorreko ikasketak egin ditzaten. Enpresak praktiketarako ikasleak eskatzen dituzte, eta IMHk ezin dio eskaera horri aurre egin. Hau guztia kontuan izanik, IMHk

ikasketa garaian edota, baita ondorengo lanbidearen garapenean nabarmendu diren Heziketa Zikloetako ikasleei bere esker ona azaldu nahi die. Epaimahaia ikastetxeko zuzendaritza eta irakasleek osatuko dute. Ekitaldi honen babesleak Danobat, Etxe-Tar, JL French eta Ona enpresak izango dira. Era berean, Engranajes Grindel, S.A.L., Gaindu, S.A., Glual Hidraulica, S.A., Industrias Alga, S.A., Industrias Metala, S.L., Kondia eta Pemec, S.A. enpresak ekitaldiaren laguntzaileak izango dira, eta IMHk guztiei eskerrak eman nahi dizkie

## Elgoibar Ikastolak 1.450 euro inguru bildu ditu Miski Elkartearentzat



Kontzientziarazioa eta diru bilketa helburutzat hartuta, Elgoibar Ikastolak ekintza desberdinak burutu ditu Miski Elkarteari laguntzeko asmoz. Iazko abenduan, DBH 3 eta 4. mailako ikasleek informazio saio bat jaso zuten Gemma Agirregomezkortaren eskutik. Urtarrila eta otsailean, Miski Elkarte bezalako hainbat Gobernu Kanpoko erakunderen egitura, helburu eta ekintzak aztertu zituzten. Honekin batera, Euroaren kanpaina jarri zuten martxan. Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergorainoko ikasleek, kanpaina honetan parte hartu zuten

familiak eta langile bakoitzari euro bana emateko proposamena egin zuten, bildutako diruarekin zer egingo zuten azalduz. Kanpainaren helburua, Peruko 50 haur eskolaratzea zen, hau da, matrikula, kirol jantziak, uniformeak... ordaintzea. 750 euro inguru bildu zituzten guztira, eta otsailaren 28an entregatu zioten Gemmari. Honekin batera, Gabon Zahar Feria egunean eginiko diru bilketan jaso zituzten 700 euroak ere, eman zizkieten. Dakizuen bezala, Gemma hilabete honetan abiatuko da Peru aldera, bertako biztanleei laguntzera.



## Jende asko bildu zen Euskaldunon Egunkariaren aldeko mobilizazioetan

*Elgothartarrek erruz erantzun zioten Kontseiluak eta fuskaldunon Egunkariako langileek martxoaren 13rako deitutako Elkartasun Egunart, eta, era berean, ikaragarria izan zen, sindtkauek deitutako lanuzteari eman zioten erantzuna ere.*



*Sindikatuak deituta, ordu beteko lanuztea izan zen 11:30etatik 12:30etara. Herriko kaleetan, taberna eta komertzio gehienak itxi zituzten, eta ikastetxe eta lantegietatik jende ugari atera zen kalera. Eguerdiko 12:00etan Madalako Parkean Kontzentrazioa izan zen Euskaldunon Egunkariaren itxieraren aurkako protesta egiteko, eta jende morda bildu zen bertan.*



*Alkorta Brockhaus enpresako argazkia dugu hau, eta esan digutenez, langileen %75ak erantzun zion lanuzteari. Danobat Taldeko IDEKO Teknologia Zentroko, langileen (180ak egin zuen geldialdia, eta %60ak laneko jardueraren lan-ordu bati dagokion dirua Egunkariari eman zion.*



*Egunkariaren Aldeko Batzordeak antolatuta, kalejira izan zen. Jende multzo handi batek, herriko kaleak zeharkatu zituen tinbal eta trikiti doinu artean. 20:00etan izan zen kontzentrazioan jende asko bildu zen Plaza Handian.*

## BONOAK

### egunnamaren aineno bonoak salgai Elgoibarko Izarran

Bono bidez egingo den lehen diru bilketa hori. Egunkariako langile langabeek sortutako Sendotu Euskal Prentsaren Aldeko Kultur elkartearen izenean egingo da. Euskara hutsez egingo den egunkaria lagundu eta sustatzeko helburuarekin osatu dute Egunkariako langileek elkarte hori, eta bertako kideak euskarazko egunkaria bultzatzeko asmoz dirua jarri duten norbanakoak izango dira.

Bilduko den diru guztia deposito kontratu baten bitartez bideratuko da elkarte horretara. Hau da, bonoa erosten duenak "deposito" kontzeptuan emango dio dirua Sendotu elkarteari. Horren truke, dirua ematen duenak enpresaren akzio edo partizipazioak izango ditu. Diru hori, baina, gehienez ere, urte betez egongo da "gordeta". Izan ere, urtebeteko epean egunkari berria edo entitate berria sortuko ez balitz, emandako diru kantitatea itzuli egingo zaio emaileari, berak esandako kontu korrontean.

Horretarako, eta bereziki egoera nolakoa den ikusita, derrigorrezkoa da jasoko den diru guztia "izen-abizenduna" izatea. Egunkariako langileek bi kopuru ezberdinetako bonoak jarri dituzte salgai: 50 eurokoak eta 300 eurokoak. Edozelan ere, irakurleak dira euskarazko egunkari berriak **izango duen oinarri** sendoenetakoa eta **horregaitik**, harpidetzak egiteko deia egin dute Egunkariako langileek.

## Zientifikoek diotenez naur egun jaiotzen diren haurrek 100 urteko bizi itxaropena izango dute GUSTATUKO AL UTZARUKE 100 URTE BIZITLEA?




**ANGELA MORENO**  
53 urte, etxekoandrea

Noski baietz! Inongo minik eduki gabe, eta ondo egonez gero, gustatuko litzaidake 100 urte bizitzea, eta ahal izanez gero, gehiago ere bai.

**ITZIAR GAZTAÑAGA**  
36 urte, sukaldaria

Bai, dudarik gabe. Osasun aldetik ondo baldin banago behintzat, 100 urte baino gehiago ere biziko nintzateke. Zientzia asko aurreratu da, baina genetika nahasketak ez zaizkit gustatzen. Modu naturalean bizi behar da.



**JOSE MARIA LOIOLA**  
53 urte, kaldereroa

Ondo egonez gero bai. Zientziak aurrera ein ahala, bizi kalitatia hobia bada, 100 urte bizitzia ondo eongo litzake, baina hortik gora ez nitxuzke hartuko.

**LUIS ROMERO**  
61 urte, artezlaria

Osasunak errespetatzen banau, 200 urte ere bai! Ahal den guztia aprobetxatu behar da.



**FLORITA PEREZ**  
68 urte, etxekoandrea

Burua eta hankak ondo eduki ezkeru bai, baina osasunez gaizki egonda, hobe da hanka luzatzea. Osasuna da garrantzitsuena, ondo egonez gero, 100 baino gehiago ere bai.

**MIKEL RUMAYOR**  
11 urte, ikaslea

Ez. 100 urte gehixegi da. Igual 60 urte ditxudanian desberdin pentsauko dot, baina printzipioz 100 urte baino gutxio bizitzia nahi dot.



**r**  
**IriondoTABERNA**

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu  
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 • Tel: 943 74 00 15

**JOSE, I1Vtjcafe**  
**(Txema)**

**Mota guztietako pintura  
eta enpapelatuak.  
Zoluak, moketak, sintasola,  
kortexoa, etab. jartzen dugu.**


San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14



# Gaztia

## Barren

NAIZ



**EMAKUMEAK**

**IKASKETA TEKNIKO ETA TEKNOLOGIKOETAN**

Ainara Garcia ELKARRIZKETA Ikasketa teknikoak GAIA A1112ia Armendarino TsAGABE

XI. urtea/439. zkia

200ar/31CWIF 71

R R T A

H I G A

E D E

G A Z T I A



AINARA GARCIA

# "Euskal Herrian arE

## NEW EARTH MUD

CHRIS ROBINSON

**T**he Black Crowes taldeko abeslariaren lehen bakarkako diskoa dugu "New earth mud". Parisen grabatu eta Toronton ekoiztu duen CD bikaina. Lan lasaia, intimoa eta oso akustikoa. Ez du zerikusirik bere anaia Rich eta konpainiarekin batera egiten zuen blues&rock-arekin. Abesterako orduan ere ez du bele beltzekin zegoeneko laztasuna. Eta ezer jakin gabe ez da erraza abesten dagoena zein den asmatzea. Baina, lasai, aldea ez baita horrenbestekoa. "Safe in the arms of love" izeneko kantarekin hasten da diskoa. Berehala, gogoak 70eko hamarkadara egiten du jauzi eta izugarritzko feelinga duten doinuekin nahasten hasten da. "Silver car" malenkonia hitzaz definitu daiteke, nahiz eta disko guztiak malenkonia puntu handia izan "Could you really love me?" kantan psikodeliak eta musika beltzak bere tokia izango dutela auntrazen digute. Dударik gabe, "Ride" da abestirik beltzena, funkyena eta dantzagarriena. Gitarraren wah-wahk eta koruek San Frantziskoko edozein txokotan gaudela sentiarazten digute. Kantari estatu batuarrek diskoan izendatzen ez diren bi abesti akustikorekin agurtzen du lana. Bi gitarra eta ahotsa dira, honenbestez, dastatzen ditugun azken gozoak.

Agian, ez da The Black Crowes taldearen jarraitzaileok espero genuena. Bestalde, merezi du horrelako diskoak argitaratzea. Batzuetan gehiegi errepikatzea ez baita komeni. Sensibilitate handiko lana dugu "New earth mud", lasaia eta oso barnekoa.

Ion Gurrutzaga Arakistain



BARREN

**BILBON BIZI DEN ARTISTA EIGOIBARTARRA DA AINARA GARCIA. ARTE EDERRAK IKASI ZITUEN LEIOAKO KANPUSEAN. ORAIN MODA ETA ARTEAREN ARTEAN DANTZAN DABIL. BERE LAN IZERDIZ TXOKO GARRANTZITSUA ETA IZENA LORTUAK DITU JADA ARTEAREN**

Arte Ederrak ikasi zenituen. Zein izan da geroztik jorratu duzun bidea?

Jarrera aktibo bat hartu nahi naban Euskal Herriko egoera soziopolitikuan aurrin, ta aspaldi hasi nintzan honen inguruan lanian. Askotan, konturatzten naiz Euskal Herriko toki asko mitifikatu itxen diala ta

identitate bat sortu nahi dala, ez da gauza bera kamiseta baten Donostia, Ermua, Hemani edo Bilbo jartzia. Ta horrekin pixkat apurtzeko kontrastiak itxen hasi nintzan, adibidez, kontxako argazki batekin kamiseta bat in ta "exotic" gainian idatziz, edo "mitoek historia natura bilakatzen dute" bezelako esaldixak estanpatuz, Eusko Labela-

rekin ere pixkat jokatuz... oin gehixen bat horretan nabil.





# zaila da modatik bizitzia

**ETA DISEINUAREN MUNDU  
KORAPILATSUETAN. BILBOKO ALDE  
ZAHARREKO KALEETAN BARNA BERE  
ESTUDIORAINO GIDATU GAITU ETA  
BERAK EGINIKO KAMISETA. GONA ETA  
ARGAZKIEN INGURUAN ELKARRIZKETATU  
DUGU AINARA.**

**Artearekin zerikusia duen beste ezer egiten al duzu?**

Diseinuan nao zentrauta baina ez dot formekin bakarrik jokatzeko, moda itxen dot baina artetik abiatuta, dana biltzen dot erropetan: ideiak, irudiak, sinboloak, kataloguak itxeko argazkilaritza... Gainera prozesu guztixa nik eramaten dot aurrera: kreatibitatea, marketinga...

**Zure arropak leku askotan egon dira erakusgai, ezta?**

Bai. Elgoibarren bertan in nuan erakusketak bat eta Donostin ere "Artistas Noveles de Guipuzcoa" rako selekzionauta egon nintzan duela bi urte, eta baita aurten ere. Guggenheimen ere egon dia erakusgai, Bilbon eta New Yorken, eta uda honetarako ere beste kolekzio bat ingo det bertarako. Salgai dauden dendak ere beste erakustoki bat dia: Donostiako Koko, Bilboko Muji, Gazteizko Blondie... Ta, noski, kalia euskarri mugikor moduan, ze erakusketara juten dan jendia beti izaten da nahiko aditua arte kontuetan baina kalia publikua askoz ere erreala da.

**Atzerrian ere izan zara.**

Bai, Erasmusekin Suitzan, Zurichen, egon nintzan argazkilaritza lantzen eta asko lagundu dia dossierrak eta kataloguak itxeko. Kanpora juten naizenian beti saiatzen naiz arte bienaletara juten, argazkixak ateratzen, estiluetan fijasen...

**Arropa bizi al daiteke?**

Ni orain bizi naiz baina zaila da, kompetentzia haundia dau. Suerte

haundia euki dot, kontakto onak euki ditxut. Nere kamisetak Guggenheimen eta erakusgai egotia oso base ona ematen dau baina asko mugitxu bihar da, kontaktuak in, jende pila batekin hitz egin... modern sistema konplexua da eta denbora guztixan lanian aritxu bihar da. Gainera, Euskal Herrixan are zaila da, ez dago estruktura sendorik ez hezkuntzan, ez laguntzetan, ez materialetan...

**Gaur egun ez da erraza izango originala izatea, ezta?**

Ez, beti berritzen egon bihar zera eta berrikuntzak gauzak aztertzea eskatzen du, ikusia nun zabizen, ze publiko motantzat lan in nahi dozun...

**Beste artista batzuekin elkarlanean ere aritzen al zara?**

Bai. Orain, bost lagunen artian ekainerako desfile bat antolatzen ari gera, magazine itxurako web orri bat ere sortu nahi dogu eta beste proiektu asko dazkagu. Cibelezen edo Gaudin ez dauan jendiari bere gauzak erakusteko aukera eman nahi diogu.

**Etorkizunerako ze plan dituzu?**


Gauzak batzutan etorri itxen dira baina normalian bila jun bihar izaten da ta horregaitxik asko mugitxu bihar da. Orain talasoterapia batzuekin eta hotel batekin hitz egiten ari naiz beraien uniformiak itxeko, beste museo batzuekin harremanetan jartzia ere pentsatzen dot, lehen go klientiekin gauza berriak itxeko asmua ere badakat...

rii **HOBE NUEN ETXEAN GELDIT.**

**HORACE MCCOY**

gela argitaletxe nafarrak nobela beltzari eskainitako "Sail beltzak" ale bat gehiago dauka. Aurrez argitaratutako liburuei beste bat gehitu zaie, Horace McCoy-ren "Hobe nuen etxean gelditu" hain zuzen. Idazle estatubatuar hau hainbat ogibidetan aritu zen lanean eta tartean gidoilaria izan zen Hollywood-eko zine industrian. Itxura guztien arabera, bertan ezagututako egoeretan oinarrituta idatzi zuen nobela hau, Los Angeles-era arrakastaren bila doazen aktore estren bizimoduari buruzkoa delako. Nobela honek bere aukeraren bila dabilzan aktore estrak aurkezten dizkigu. Pertsonaia horiek filmeetako protagonistak izan nahi dute baina ez da erraza gora iristea eta hori lortzeko, batzuetan, norberaren duintasuna kolokan gera daiteke. Liburu gordina da, errealtatea bera bezalakoa. Hemen ez dugu topatuko hilketarik, sistemaren bortxa delako erakusten dena. Horace McCoy-ren "Hobe nuen etxean gelditu" honek gaurkotasun osoa dauka, idatzi zuenetik urteak pasa badira ere, gaur egunean gazte mordoak zinemaren mekara joaten segitzen dutelako zazpigarren arteko izarrak bilakatzeko esperantzan.

**Jon Eugi**



# Emakumeak

**Ez dira asko buzoa soinean eta esku zikinekin lan egiten duten emakumeak. Hori dela eta, Debegesak emakumeak ikasketa tekniko eta teknologikoak egitera bultzatzeko kanpaina martxan jarr'**

**Debabarreneko eskua tradizio industrial luze.** L.Ltd

**honetako lan eskaera nabarmena ikusita eta langabetuen %68,15 emakumeak direla kontuan hartuta, D.B.H. 3. eta 4. mailako neskei zuzendutako orientazio saioak antolatu dira, industriarantz zuzendutako ikasketak ere beren etorkizunerako aukeren artean kontuan har ditzaten. Orientazio saio hauez gain, eskualdeko Formakuntza Profesionaleko zentroek eta industriek ateak irekiko dituzte ikasle eta gurasoentzat, eta idazlan txapelketa bat ere antolatu dute "emakumea, enpresa eta lana" oinarritzat harturik.**

**Dena den, eredurik onena errealitatea bera denez, Arreiturre institutuan elektromekanika eta automozio ikasketak egiten ari diren bi neskekin hitz egin dugu txapa, motor, erreminta eta buzo artean.**


• tziar Rosado eta Gloria Pera  
1 automozio eta elektromekanikako ikasleek 21 eta 22 urte dituzte, eta txikitatik gustatu izan zaie orain arte gizonezkoen monopolioa izan den mundu hau. "Nire etxean kotxei buruz bakarrik hitz egiten da...", aitortu digu Gloriak, eta Itziarrek ere, aita kamioi gidaria izaki, hurbiletik ezagutu izan du betidanik giro hau. Horregatik, agian, etxean ondo hartu zuten beren erabakia eta, alde horretatik, behintzat, ez zuten arazorik izan.

Hala ere, aitortu digutenez, jendea asko harritzen omen da beraiek buzoa jantzita eta destornilladorea eskuetan ikusita. "Askok uste dute ez gerala gai gure lana ondo itxeko. Egixa da mutil askok besteko indarrik ez dakagula eta hau arazua zan oin dala 10 urte, baina gaur egun dauden makinekin, indarra ez da inportantiena eta emakume batek oso ondo lan in dezake". Hala ere, badirudi jende askok ez duela horrela pentsatzen eta lanean hasteko ere emakume izanda zailtasun handiagoak topatzen direla esan digute: "lan elkarrizketa batera 4 mutil eta neska bat jun ezker, nota hobiak eukita ere, ziur ez tutelera neskia hartuko!".





# BUZOA JANTZITA




Gainera, beren inguruan ia denak mutilak direnez, giroan ere nabarmentzen omen da hau... "Tailer batera sartu eta lehengo gauza neska biluzi baten posterra ikustia izaten da, eta mutilen artian ere bi gai bakarrik entzuten dia: kotxiak eta sexua. Horren aurrrian bi aukera dazkazu: edo deprimitxu edo beraiekin batera parre in," dio Itziarrek, "gainera hasieran nesken aldagelarik ere ez geneukan, hori ere reklamau in bihar izan gendun!". Baina mutilei ere kostatu egin omen zitzairen beren artean neskak izatera ohitzea. "Hasieran kortau itxen zian gure aurrrian hitz egiteko eta aurretik pasatzen ginan bakoitzian beti zan zeoze: txistuak, komentariuak...". Baina, dena dela, oso ondo konpontzen omen dira mutilekin, nahiz eta noizean behin txantxa antzean "neska batek itxeko bastante ondo dao" eta horrelako komentarioak entzun behar izaten dituzten, eta pixka bat mimatuta ere badaudela aitortu digute, "baina ikaskidiek bakarrik mimatzen gaitxuzte e!, hasieran pentsatzen gendun igual neskak izanda irakasliek faboretoren bat ingo zigutela baina...keba!!!". Oraindik ere matxismoa existitzen al den galdetu diegunean, hala ere, biek batera eta erdi oihuka erantzun digute "Hoixe existitzen dala!, eta ez giro honetan bakarrik, arlo guztixetan!"

Neskek ikasketa teknologikoak ez egiteko arrazoi nagusiak tradizioa eta ohitura falta direla esan digute, "lan honetan beti gizonezkuak ikusi izan diane, hasieratik bazterten dute aukera hau", eta oso garrantzitsua iruditzen zaie neskak arlo honetara erakartzeko kanpainak

egitea, izan ere, "neskak errezo animatzen dia beste neska batzuk ere honetan ari gerala ikusitxa, eredu moduan hartzen gaitxuzte" dio Itziarrek, "horrek ahal badu, nik zegaitxik ez?, pentsatzen dute".

Ez dago dudan jarterik neska hauek gustura ari direnik, eta ea neskak ikasketa hauek egitera animatuko al lituzketen galdetzean, ez dute bi aldiz pentsatu "bai, dudarik gabe. Ospitalak gustatzen zaizkionak medikuntza ikas dezala, baina ez dezatela aukera hau neskak izatiarren bakarrik beh intzat baztertu!".

Hor gelditzen da, beraz, gomendioa, eta ziur, inor buzoa jantzera animatuz gero oso gustura hartuko dutela bai bi neska hauek eta baita inguruko mutilek ere. "Mutilen posterrak jarriko ditxugu paretetan!" dio Gloriak. Ea, ba, horrela neska gehiago animatzen diren!



# lots@gabE

Atal honetan azaldu nahi baduzue deitu edo etorri BARREnera. Animatu!

## @ Noiz egin duzu negar azkeneko aldiz?

Jun zan ostrialian, zinian "A proposito de Sehrmidt" ikusten

## @ Existitzen al da betirako maitasunik?

Ez dakit, hil baino egun bat leheno esan biharko nizuke.

## @ Askatasuna, zoriontasuna ala lasaitasuna?

Askatasuna

## @ Betiereko bizitzaren pozima duzu eskutan,

edango al zenuke?

Ez

## @ Zer izan nahi duzu nagusia izatean?

Inoren menpe bizi ez dan pertsona.

## @ Muxu bat. Non?

Lepoan

## @ Inoiz entzun duzun esalditik onena?

"Eres mas peligroso que un tonto con iniciativa"

## @ Mutil perfektua.

Ez zaizkitz perfektuak gustatzen, inperfektzibak politxak dia

## @ Zurk. gehien gustatzen zaizun atala?

Ahoa

## @ Neska batek maite zaituela esango balizu?

Sentitzen detena esango nioke

## @ Ikustezina bazina?

Aspertu ingo nintzake

## @ Berriro jaioz gero zer izan nahiko zenuke, mutila ala neska?

Neska, ama izatia politxa izan bihar da

## @ Oparirik onena?

Mendiko loriak

## @ Parrandarako tokirik onena?

Iruñea, San Ferminetan

## @ Iraganean egindako ezertaz damutzen zara?

Ez, beti ikasten da zerbaitx

## @ Inoiz egingo ez zenukeen zerbait?

Nire printzipiuen kontra jutia

## @ Zerk gorritzen zaitu`:

Txorrada bat esan ta inork ez parre itxiak

## @ Kantu bat:

-juergarako : Gatibun "Musturrek sartunde"

-negar egiteko : Mikel

Urdangarinen "egun argian"

-maite duzun horretz alboan

o: Su ta Gar-en "maitasun gauzetaz..."

bat.

Amsterdarn

## @ Txaloak

Euskeran alde lan itxen dutenei

Aznarri, Sanzi, Blairi, Bushi, Sadami...puf, pakian dauana pakian uzten ez duten guztixeri



**ga.zte**  
informazioa

4119413 TXARTELA

Argazkia  
NRN.  
Mabikula  
6 euro

TXARTELA

Argozkia  
NAN.  
6 euro

4014 1111511-> TXARTELA

Argazkio  
NAN.  
Lan kontratuaren  
frogagiria  
8 euro

**fiterpetheen liburu gida  
salgai 7,80 eurotan**

(Europa, Afrika, Amerika, Asia)

vtibKeie  
I. IIII11 aly TXARTELA

GAZTER (14<25 urte)  
NAN.  
5 euro  
Gozte Txortelorekin 2,5 euro

HELDUA (25<)  
NAN.  
11 euro

FAMILIAKOR  
NAN.  
22 euro

TALDEKOA  
Portoideen zerrendo  
Estotutuen kopio  
15 euro  
Dohoinik EJko elkorteen portoideok



# Handia naizEnEan.. gorputz hEzkuntzako irakaska



**EDURNE JUARISTI**

*Edurne Juaristi 18 urteko elgoibartarrak joan zen urtean bukatu zituen giza eta gizarte zientzietako ikasketak Arreiturre institutuan eta, egun, "gorputz eta kirol ekintzen sustapena" goi mailako zikloa ikasten ari da Donostian.*

**Nolatan erabaki zenuen goi mailako ziklo hau egitea?**

Betidantik gustatu izan zait kirola egitea eta aspalditik neukan buruan honekin zerikusia zuen zerbait ikasi nahi nuela. Hasieran, IVEFekin pentsatu nuen baina oso nota altua eskatzen dutenez goi mailako ziklo hau egitea erabaki nuen.

**Zenbat denborako ikasketak dira?**

Bi urteko zikloa da eta lehenengo urtean bertan hasten gara praktikekin.

**Zer motatako praktikak egiten dituzue? Non?**

Batetik, eskola orduetan egiten ditugun praktikak daude eta, bestetik, gure kontura egin behar ditugunak. Eskolan, hilerio aldatuz, mota askotako kirolak egiten ditugu: futbola, eskalada, igeriketa, eskubaloia, saskibaloia, esku pilota, atletismoa, boleibola, aerobica... denetik. Honetaz

gain, eskola orduetaz kanpo norberak topatu behar du praktikak egiteko era, ni, adibidez, eskolarteko kirolertarako Mendaroko ume batzuk entrenatzen ari naiz, eta Ikastolako beste talde bati laguntzen. Horretaz gain, ahal dudan guztietan Mintxetara joaten naiz Step-eko klaseetara, monitore izateko prestatzeko.

**Irteerak ere egiten dituzue eskolatik, ezta?**

Bai, adibidez, Zuazara joan ginen uretako kirolak praktikatzera eta aurrerago eskiatzera joango gara eta baita Bardeetara ere, bizikletan ibiltzera.

**Zer irtenbide ditu goi mailako ziklo honek?**

Goi mailako zikloa amaitu ondoren edozein magisteritza, fisioterapia, gizarte-hezkuntza, gizarte-lanak, erizaintza, lan-harremanak, turismoa eta IVEF ere egin daitezke, azken hau oso zaila den arren, oso plaza gutxi daude eta nota altua eskatzen dute. Zikloa bakarrik eginda Donostian, esaterako, irtenbide gehiago daude hemen baino, eskolatan laguntzaileak behar baitira eskolarteko jokoetarako eta baita aisialdiko taldeetarako ere.

**Gomendatuko al zenituzke ikasketak hauek?**

Kirola asko gustatuz gero bai, dudarik gabe. Baina bestela gogorra egiten da, izan ere, egunero eskolatik 2 edo 3 orduz ariketa fisikoa egiten aritu ondoren etxera heldu eta etxe-ko lanak egiteaz gain, praktikak egin behar dira, azterketa praktikotarako entrenatu...egun osoan gelditu gabe ibili behar da.



**Eli Moreno**  
SEXOLOGOA  
III~II~IIIIIIIIII

## LIGATZEKO SAKELEKO TELEFONOA!!!!

Ikastaro asko egoten dira ligatzeko teknika desberdinak erakusten dituztenak; baliogarriak diren? Auskalo! Danetarik egongo da, batzuk harremanak izateko orduan estrategia desberdinak erakutsiko dituzte, erabiltzen ditugun estrategia tipikoak aztertuko dira... Baina ikastaro hauetan sakeleko telefonoaren garrantziaz hitz egiten al da? jakin badakigu gazteen artean sekulako garrantzia daukala: mezutxo bat

**Vf rei C71** tzen dot, dei galdu bat egiten dut.... seinale batzuk bidaltzen ditut besteak zuzenean erantzuteko eta hor gaudela jakiteko. Ligatzeko modu sutila da, ez daukat zuzenean ezer esan beharrik, bestearen aurpegia ez dut ikusten, denbora epe luzea daukat pentsatzeko zer idatzi behar dudan eta ezezko zuzen bat jasotzeko ere aukera gutxiago dauzkat. Guzti honen goxamena eta misterioa ematen dio liguari, inoiz ez da

**O**kizu zer eta noiz erantzungo dizun, egon ezina eta ilusioa sortuz!!!

Honen ondorioz, aurren Bergaran Maitasun gutunen lehiaketarekin batera, sakeleko telefono bidezko maitasun mezuen lehiaketa egin da, irabazlea honako hau izan delarik: Zuretzat;(m)jimoak,(a)isia,(i)lusioa,i(t)xaropena,d(e)sioa,guzti(a)! Honek imaginazioa izatea eta hitz gutxitan asko esateko gaitasuna eskatzen du. Beraz, animo eta entrenatzera. Baina ez ahaztu aurrez aurre ligatzeak ematen dituen aukeretaz!!

*Biluzik Sexologia Zerbitzua  
Gazte Wonnazio Gunea. Kultur Etxea.  
Bigarren solairuan. TeL 943 74 14 61.  
E-zaila: biluzikzerbitzua@yahoo.es  
Astelehena 17:00-20:00*

### GORPUTZ HEZKUNTZAKO IRAKASLE

<p><b>IKASGAIAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Anatomia</li> <li>-Jokoak</li> <li>-Didaktika</li> <li>-Animazioa</li> <li>-Fisiologia</li> <li>-Kirol ezberdinen inguruko teoria</li> </ul>	<p><b>NON IKAS DAITEKE?</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Eibarren</li> <li>(gazteleraz)</li> <li>-Aretxabaletan</li> <li>-Arrasaten</li> <li>-Durangon</li> <li>-Donostian</li> <li>-Gasteizen</li> <li>-Bilbon</li> <li>-Zierbenan</li> <li>-Barakaldon</li> </ul>
--	--

# Kont. rtual

## MARTXO

### 21 barixakua

#### ELGOIBAR

Señor No eta Aterkings

Gaztetxean

#### HERNANI

Fundacin Tony Matiero,

Raimundo Amador, Desmond Decker, BILBO

La Polla eta Gatibu.

Ateneo aparkalekuan

### 22 zapatua

#### BERGARA

O'funkillo eta Dawholeenchilada

Jam arctoan

#### HERNANI

Gari, Mallacan, Kiko Veneno,

Kuraia eta Potato

Ateneo aparkalekuan

#### BALMASEDA

Oskorri

Ateneo aparkalekuan

#### ONDARROA

Betagarri

Kafe Antzokian

### 29 zapatua

#### BERGARA

Albert Pla eta Diego Cortes

Jam Aretoan

Kepa Junkera

Arriaga Antzokian

## APIRILA

### 4 barixakua

#### BERGARA

Gayle San, Phil Kieran, Marcel

Janovsky eta Jeff Bennett

Jam aretoan

### 5 zapatua

#### BERGARAN

Siniestro Total eta La lengua de

trapo

Jam aretoan

#### JARDUNALDIAK

##### Solidarioak

Sodezek 2003ko udako bidaia solidarioak antolatu ditu herrialde desberdinetako giza egoera ezagutu nahi dutenentzat. Herrialdeak: Peru, Mexiko, Ekuador, Kuba, Palestina, Brasil eta Maroko. Epea: apirilak 15.

##### Ingelesko udalekuak

Castrumek 8tik 17 urtera bitarteko haur eta gazteen-tzako ingelesko kanpamentuak antolatu ditu. Valladoliden burutuko da uztailko bi hamabostalditan. Epea: plazak bete arte.

##### Artea

Kantabriako Gobernuak Pancho Cossio 2003 arte ederrean gazteentzako lehiaketa antolatu du: marrazketa, pintura, eskultura, argazkilaritza eta bideo sor-kuntza. Epea: apirilak 25.

##### Laburmetriak

Localia Televisionek laburmetriaren lehiaketa antolatu du, laburmetrai sortzaile gazteentzat. Epea: abenduak 31.

##### Igeltseroa

Eibarko Udalak igeltsero postu bat betetzeko oposizio lehiaketaren deialdia egin du. Lehen mailako lanbide heziketako titulua, eskola graduatua edo titulu baliokidea eta euskarako 1. hizkuntza eskakizuna eskatzen da. Epea: martxoak 25.

##### Peoiak

Nafarroako Erribera Goitiko HHSko mankomunitate-ak Peraltan egoitza duen mankomunitaterako 3 peoi lanpostu betetzeko oposizio lehiaketa antolatu du. Eskola graduatua beharrezkoa. Epea: apirilak 8.

##### Koordinatzailea

Marcillako Udalak Kultura eta Kirol koordinatzaile lanpostu bat betetzeko oposizio lehiaketa antolatu du. Unibertsitateko diplomatura, ingeniari teknikoaren titulua, arkitekto teknikoaren titulua edo 3. mailako lanbide heziketako titulua, B kategoriako gidabaimena eta ibilgailua beharrezkoak. Epea: apirilak 9.

##### Udaltzainak

Azkoitiko Udalak udaltzainen lan poltsa osatzeko deialdia egin du. Eskola graduatua, euskarako 2. mailako hizkuntza eskakizuna eta 18-30 urte bitartean izatea eskatzen da. Epea: martxoak 25.

oseememeferfeemen.omeggatraomuomoso..14.maseaseee.o.rossmooseemon.aeca





## Alberto Torresen eskultura erakusketa inauguratuko da martxoaren 28an

**lberto** Torres (42 urte) Beasainen jaio zen eta Amurrion bizi da, baina elgoibartar batekin dago ezkondua eta azken 10 urtetan San Lorenzo bailarako Musillo baserrian egiten ditu bere eskultura lanak. Artista autodidakta honen lanak egurra du oinarri, eta abstrakzioa hizkuntza. 25 urte daramatza bolumerarekin eta formarekin solasean, "aitona arotza nuen eta egurra lantzeko tresnak beti izan ditudanez gertu, egurrari aurpegiak eta formak ateratzen hasi nintzen. Hasieran ez nekien zer

adierazi nahi nuen, baina denborarekin teknika hobetzen joan ahala, nire hizkuntza propioa bilatu nuen. Gero nire lanak jendaurrean erakusteari ekin nion. Iaz hasi nintzen erakusketak antolatzen eta Elgoibarkoa laugarrena izango da". Guztira 20 eskultura inguru erakutsiko ditu, gehienak azken urte eta erdian sortutakoak. Apirilaren 13ra bitartean izango da ikusgai erakusketa Kultur Etxean. Ordutegiari dagokionez, astegunetan: 19:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.



## Dantza jaialdia eskainiko dute Muskildiko eta Haritzeko dantzariak Plaza Handian



**E**lgoibar Xiberoarekin auzolanean egitasmoaren barruan Haritz Euskal Dantzari Taldeak eta Zuberoako Muskildiko dantzariak dantza ikuskizuna eskainiko dute martxoaren 23an, dornekan, 13:00etan Plaza Handian (Eguraldi txarra izanez gero Herriko Antzokian).

Iparraldekoek Zuberoako dantza tipikoak ekarriko dituzte gure artera eta

Haritzeko kideek, berriz, Bizkaiko Dantzari dantza, Arratiako jotak eta Gipuzkoako Nesken Esku dantza. 12:30etako meza amaitu ostean hasiko da saioa eta 14:00ak aldera amaituko da. San Bartolome jaietako Soka Dantza izan ezik, aukera gutxi izaten dira Plaza Handian dantza ikuskizunak antolatzeko. Beraz, eta eguraldia lagun, folklore jaialdi aparta ikusteko aukera izango da.

## Mikel Markez eta Pako Aristiren saioa martxoaren 28an Korrika Kulturalaren barruan

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako "Euskal Kantagintza" egitasmoarekin jarraituz, eta oraingoan Korrika Kulturalaren barruan, Mikel Markez abeslariaren eta Pako Aristi idazlearen saioa antolatu du Elgoibarko Udaleko Euskara batzordeak AEK euskaltegiarekin elkarlanean.

Saioaren izena "Abiadura Handiko Urte baten Kronika" izango da. Musika eta letrak batuz, hotsak eta hitzak hartuz, umorea, kritika, samurtasuna eta ironia nahastuz, herrialde askotan egiten den antzerki herrikoia generoa ekarriko dute Elgoibarrera. Bi sortzaile hauek, eszenatokiaren gainean, jendeari zirrarra, irribarra, samina eta gogoeta eragiteko prest izango dira. Saio hau martxoaren 28an, barixakuan, gaueko 22:15ean Inazio Bereziartua Musika Eskolako Auditorioan izango da. Sarrera doan izango da.

## Ekaitz Isasik "Eski Estremo" Txapelketa batean hartu du parte

Helikopteroz igo zituzten parte hartzaileak mendi puntara

**M**endi punta batetik norberak aukeratutako bidetik jaistea da eski estremo, sinpleki azalduta. Ekaitz Isasi snow eta "boarder-cross" txapelketeta askotan ibilitakoa da, baina duela gutxi eski estremo txapelketan parte hartzeko aukera izan zuen lehen aldiz, Andorrako Arcalis eski estazioan. "Ballantine's" etxeak antolatu zuen eta inbitazioa beharrezkoa zen, "29 lagun inbitau gintxuen, 8 eskiatzaile eta gainontzekuak snow tabliakin. Gastu guztixak pagauta jun ginan; biagia, hotela, etab". Maila altuko jendeak parte hartu zuela aipatu digu elgoibartarrak, "Hiru frantses, bi suitzar eta argentinarrak zauden. Everest, Alaska eta munduko beste hainbat tokitxan ibilitxako jendia zan".

### Epaileen lana

Eski modalitate ikusgarri eta arriskutsu honetan helikopteroz igozten dira



Snow eta boarder-cross txapelketa askotan hartu du parte Ekaitz Isasik.

partehartzaileak mendi tontorrera. Epaileak pareko mendian egoten dira eta hainbat gauza hartzen dituzte kontutan: Aukeratutako ibilbidearen zuzentasuna eta

zailtasuna, geldiene asko egin gabe jaistea, estiloa eta oztopoak eta harriak jauzi egiteko trebezia, besteak beste. Bestalde, segurtasun faltagatik eta gehiegi arriskatzeagatik puntuak kendu ditzakete. Partehartzaile denak jaitsi ondoren, 8 onenak finalerako sailkatu ziren. Ekaitzek ez daki ziur zenbatgarren postuan sailkatu zen, baina azkenetakoa izango zela aitortu digu. Irabazleak Nepalen egingo den txapelketara joateko aukera izango du eta bigarren eta hirugarren sailkatuek, berriz, Barilochera (Argentina). Txapelketan grabatutako irudiekin dokumental antzerako bat egiteko asmoa dute antolatzaileek. Ekaitzek esperientzia izugarria izan zela esanez agurtu gaitu, "bertan

gaizki pasau naban, bildur handixa, baina helmugara ailegatziak poztasun handixa eman zian. Berriz probatzeko desiatzen nao".

## Marka pertsonala jaistea lortu du Alazne Eskudero Espainiako Atletismo txapelketan



Aitor Arrillagak Espainiako Kros Txapelketan hartu du parte Tarragonan.

**D**asa den astean aipatu genizuen moduan Alazne Escudero atleta elgoibartarrak 60 metroko Espainiako Atletismo Txapelketan hartu zuen parte Valentzian. Gipuzkoako txapelduna da Alazne eta gutxieneko marka (8'25") lortu zuelako joan zen Valentziara. Finalera pasatzeko bi kanporaketa gainditu behar zituen eta lehenengoan aurrera egitea lortu zuen 8'16" denbora bikainari esker. 60 metrotan zuen marka pertsonala hobetu zuen. Bigarren kanporaketan lehen lurak pasatzen ziren finalera eta Alazne 5. postuan sailkatu zen, 8'19" denborarekin. Ezin izan zuen finalean aintxintxika egin, baina

zeukan onena emanda itzuli da Alazne etxera.hainbat tokitxan ibilitxako jendia zan".

### Aitor Arrillaga

Bestalde, Aitor Arrillaga elgoibartarrak kadete mailako Espainiako kros txapelketan hartu zuen parte Tarragonan. Mintxetan jokatu zen Euskadiko Txapelketan 5. postuan sailkatu zen eta Gipuzkoako selekzioaren deia jaso zuen Katalunia aldera joateko. Maila handiko lasterkariak izan zituen aurrean eta 105. postuan amaitu zuen Mintxeta Atletismo taldeko ordezkariak.



## Xabier-Egaña bikoteak irabazi du San Ilorentzokt Esku Pilota Txapelketa


Sallobente Elkartek Artazo pilotaria zenaren omenez antolatzen duen Pilota Txapelketaren finalak pasa den zapatuan, hilaren 15ean, jokatu ziren Sallobente-

Ermuaraneko frontoian. Bigarren mailako finalean sanmigeldarrak izan ziren protagonista, lau pilotariak baitziren Aiaastia auzokoak. Uberak eta Orubek osatutako bikoteak jantzi zuen txapela Ibarluzea eta Karral bikoteari 22 eta 10 irabazi ostean. Lehen mailako finalean

Xabier eta Egañak 22 eta 11 hartu zituzten mendean Eneko eta Unai anaiak. Urtarrilaren 5ean hasi zen txapelketa eta 10 bikotek hartu dute parte bi mailetan.



## 64 neska-mutilek hartu zuten parte VI. Pilota Egunean



Ikastolak urtero antolatzen duen Pilota Eguna jokatu zen pasa den martxoaren 15ean, Ikastolako frontoian. Bertan, finalera iritsi diren 64 pilotariak binakako 16 partidu jokatu zituzten. 96an jaiotakoak ziren gaztetxoak eta 89an jaiotakoak nagusienak. Denek ere pilotan jokatzeko intentzioa erakutsi zuten eta bakan batzuk kirol honetan etorkizuna izan dezaketela ere frogatu zuten.

## 20 emakume elgoibartar izan ziren Donostiako Lilathoian

Emakumeen Nazioarteko Eguna (martxoak 8) ospatzeko sortu zen Lilathoia duela 14 urte. Kirola, jaia eta errebindikazioa uztartzen dituen probak 5 kilometroko ibilbidea du eta

Donostiako kaleetan egiten da.

Emakumeek bakarrik parte har dezaketen lasterketa herrikoia da eta zenbait emakume elgoibartar urtero joaten da hutsik egin gabe, aurtan 20 herritar izan dira lasterketan. Antolakuntzak sari bat ere eman zien.



## EMAITZAK

### Futbola

Haundi 2 — Zestoa 0 (Pref.)

Elgoibar 4 — Soraluze 2 (Jub.)

Elgoibar 0 — Mutriku 0 (Kad.)

Elgoibar 5 — Sporting Herrera 1 (Inf.)

Elgoibar 0 — Urola 1 (1. erreg.)

### Esku pifot

#### Udaberri saria

Lizardi Igeldo 12 — Lagunak B 22 (Kad.)

Lizardi Igeldo 7 — Lagunak A 22 (Kad.)

### Areto futbola

Lojantzi 3 — Rotulos Martin 2 (Jub.)

Kenci Elg. 3 — Jarrileros Portugaleta 8 (Nazional B)

Arditurri 4 — Lanbroa 9 (1. maila)

### Eskubaloia

Gaur Elg. 23 — Usurbil 30 (Jub. mut.)

Sanlo Elgoibar 26 — Muskiz 13 (Senior neska.)

Arrate 21 — Tecnomedca Elg. 19 (Kad. mut.)

Arrate 29 — Pneumax Elg. 22 (Jub. mut.)

Ereintza 27 — Tecnifuelle Elg. 21 (Sen. mut.)

Sanlo Elg. 20 — Ereintza 19 (Sen. neska.)

## AGENDA

### Areto futbola. Kiroldegian

Barixakua, 21

22:10 Lanbroa — Clinica Dental Aldaz (1. maila)

### Futbola., rvlintxetar'

Domekia, 23

12:00 Elgoibar — Tolosa (Inf.)

### Eskubaloia, Kiroldegian

Zapatua, 22

17:30 Elgoibar — Bera Bera (Sen. neska.)

19:00 Tecnifuelle Elg. — Trapaga (Sen. mut.)

Domekia, 23

11:00 Tecnomeca Elg. — Ereintza (Kad. mut.)

12:30 Pneumax Elg. — Ereintza (Jub. mut.)

//0<sup>ir</sup>

## Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Debabarreneko enpresak delinea-  
antea behar du. Erref. 98231/2

Debabarreneko enpresak salmenta  
arduraduna behar du.  
Erref. 98598/3

Donostialdeko enpresak ingeniari  
teknikoa behar du.  
Erref. 96581/3

Debabarreneko enpresak metale-  
rako peoia behar du.  
Erref. 97398/3

Eibarko aldi baterako enpresak  
metaleko peoia behar du.  
Erref. 98550/3

Durangoaldeko enpresak ajusta-  
tzailea behar du. Erref. 97483/3

Ermuko enpresak garbiketarako  
langileak behar ditu.  
Erref. 97926/1

Debabarreneko enpresak adminis-  
trari laguntzailea behar du.  
Erref. 96417/7

Debabarreneko enpresak fruta  
dendarako langilea behar du.  
Erref. 97251/3

Debabarreneko enpresak RRHH  
zuzendaria behar du.  
Erref. 98599/2

Hautagai moduan sartzeara eskatu  
nahi baduzu 901222901  
telefonora deitu edo 'Langai'-k  
Elgoibarren dituen zentru  
laguntzaile hauek batera deitu:  
Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi)  
943 74 80 19 edo IMH (Nora  
Raman) 943 74 41 32 telefonora.

### ESKAERA

Emakumea asteazkenetan gar-  
biketa lanak egiteko prest.  
943 74 22 01 (Araceli)

20 urteko mutila edozein lan  
egiteko prest, ahal bada tailerre-  
an. Mekanizatu titulua daukat.  
11 943 74 46 14/609 93 61 86

Neska astelehenetik ostiralera  
umeak edo helduak zaintzeko  
prest Mendaron.  
635 71 68 31 (Eli)

Emakumea etxeko lanak egin,  
umeak zaindu edo garbiketa la-  
nak egiteko prest.  
tr 943 74 29 54 (M' Jesus)

Emakumea etxeko lanak egin  
edo gaixoak zaintzeko prest.  
tr 943 03 03 21 (Mertze)

Emakumea umeak zaintzeko  
prest. Klinika auxiliar esperien-  
tziaduna. 13 943 74 30 04  
(Elena. 20:00etatik aurrera)

Mutila buzoneo lanak egiteko  
prest. tr 943 74 44 63  
(21:00etatik aurrera)

Mutila garbiketa lanak egiteko  
prest. Tr 943 74 44 63  
(21:00etatik aurrera)

### ESKIAINTIA

Emakumea behar da pertsona  
nagusi bat zaintzeko. Elgolarta-  
rra, eta ahal bada euskalduna.  
13' 943 74 11 60/943 74 21 20

Mutil edo neska behar da ta-  
bernan lana egiteko. Asteaz zehar  
arratsaldez, eta asteburue-  
tan. Txandaka.  
tr 943 74 28 97

Elgoibar Ikastolak TAFYD titula-  
zioa duen, euskaraz aisa hitz  
egiten duen eta Eskola Kirola on-  
do ezagutzen duen kirol ardura-  
duna behar du. Interesatuak bi-  
dali C.V. Ikastolara martxoaren  
19a baino lehen.

Etxeko lanak egiteko emaku-  
mea behar da, ahal bada, eus-  
kalduna. tr 656 78 98 82

## Etxebizitzak

Baserrira salgai Madarixa auzoan.  
943 20 08 20 (20:30etatik aurrera)

Etxea alokatzen da Luz Ardidenen As-  
te Santurako. 6 lagunentzat, 360 euro.  
zr 615 75 02 86

Etxea sedo logela hartuko nuke alokai-  
ruan. tr 626 91 49 04 (Rosa)

Etxea salgai Elgoibarko erdialdean.  
Eraberritua, kanpora begira, berogailua.  
Bizitzera sartzeko moduan.  
tr 943 75 62 94

Duplex apartamentua alokatzen da  
Menorkan. 4-6 lagunentzat, hondartza  
ondoan, erabat amueblatua.  
tr 902 10 32 87

Etxea alokatzen da Elgoibarren.  
«ir 615 72 36 12 (astegunetan  
20:00etatik aurrera. Asteburuan egun  
osoan)

Pisua osatzeko jendea behar da.  
1T 610 45 85 52 (21:00etatik aurrera)

Etxebizitza salgai Berrizen, berrituta,  
amueblatuta, bizitzera sartzeko moduan.  
n- 626 84 18 70

Pisua alokatuko nuke Elgoibarren.  
Tr 650 94 11 73

Garajea hartuko nuke alokairuan San-  
ta Klara inguruan. zr 943 74 26 21

Garajea alokatzen da Leku Ederren. 3.  
solairuan, sarrera onarekin.  
660 79 53 01

Urme baten kazadora bakeroa galdu  
dut. Barrutik gorria da, negukoa. Aurki-  
tu duenak deitu mesedez.

943 74 38 53 (Eduarne)  
Urrezko pultsera galdu dut.  
Tr 943 74 22 63

Flauta eta funda galdu nituen Plaza  
Txikito jolaslekuan otsailaren 25ean. La-  
nazkoa, urdin iluna..  
tr 943 74 12 47

Urrezko eta pedreriadun belarritakoa  
aurkitu nuen urtarrilean ambulatortik  
Madalara bidean. a 943 74 0578

## Salerosketak

Opel Kadet 1.6 sv salgai. 55-AF-  
Merkea.  
tr 943 74 05 17/ 620 01 12 64

4,5 kelibreko Norica Crono karabi-  
na salgai. Egoera oso onean.  
zr 943 74 27 27

Ford Scorpio 2500 turbo diesel sal-  
gai. ts 649 97 10 53

Kotxea salgai. Rover 216, GSI.  
Merkea. u- 635 72 30 26

Fiat Tempra salgai. SS-AN. Egoera  
oso onean eta oso merke.  
zr 696 49 43 78 (Lan egunetan  
21:00etatik 22:00etara, jai egunetan  
edozein ordutan).

## A.1-13ERDIE ERREKADISTA v609 264 705

### BILKETAK

- Paketeak
- Gestoria
- Sobreak
- Komertzioa

### GESTIOAK

- Ogasuna
- Trafikoa
- Merkataritzako erregistroa
- Diputazioa
- Merkataritzako - ganbera



**OHARRA:**

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Zorionak Irneri, gaur hilak 21,15 urte bete dituelako. Lagunen partez.




Zer pentsatzen zendun, ez ginala gogoratuko? Zorionak **prexioxa!** Ikastolako laguntxo partez.



♦ Zorionak **Leire**, martxoaren 13an, 5 urte bete zenituelako. Etxeko eta bereziki Josu txikiaren partez.



Zorionak **Ane Artola Arreitunandiari**, martxoaren 12an 7 urte bete zituelako. Txintxintxo segi. Familiako partez.



Zorionak **Iria Andraderi**, hilaren 24an 7 urte beteko dituelako. Familiako eta bereziki zure ahizparen partez.



Zorionak **Danel**, gaur 5 urte bete dituzulako. Familiako partez.



Zorionak **Andoni Arrillaga**, hilaren 17an, 7 urte bete zenituelako. Familiako partez.



Zorionak **Iosu**, hilaren 25ean, 10 urte beteko dituzulako. Etxeko eta bereziki, anaia Ekaitzen partez muxu handi bat.



Zorionak gure San Jose Iorrik kuttunenari. Muxu haundi-haundi bat **Haizea!**



Zorionak **Ainarari** bere lehenengo urtebetetzean.



♦ Gure sorgintxo bikoteari muxutxuak beren lehenengo urtebetetzean, lehengusu Gorka eta Ionan partez. Zorionak **Nora** eta **Andrea** familiako partez.

# Zorionak **bikote!** Urte potolo bat bete bihar dozue, eta ospatuko dogu! Ikastolako laguntxo partez.

## Farmazia - okindegia

### EGUNEZ

- 21 Etxeberria**  
(Santa Ana kalean)
- 22 Bidasolo**
- 23 Fernandez**
- 24 Yudego**
- 25 Zabaleta**
- 26 Etxeberria**  
(Errosario kalean)
- 27 Ibañez**
- 28 Bidasolo**

### GAUEZ

- Etxeberria**
- Fernandez**
- Fernandez**
- Yudego**
- Zabaleta**
- Etxeberria**
- Ibañez**
- Bidasolo**

### FARMAZIAK

**ESCALA**, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**,

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

### OKINDEGIA

**23 igindea** Idarraga

## 21 BARIXAKUA

### 22:30 "SEÑOR NO" ETA "ATERKINGS"-EN KONTZERTUA

Gaztetxean  
Sarrera: 4 euro

## 22 ZAPATUA

### 16:00 ELGOIBARKO XAKE TXAPELKETA

Juan Mugerza kalean (pista beltza)

### 22:30 JAIALDIA

Txapapotearen kalteei aurre egiteko  
Ikastolako frontoian  
Antolatzailea: Nunca Mais - Sekula ez  
berriro.

## 23 DOMEKIA

### 13:00 DANTZA JAIALDIA

Muskildiko Dantzariak eta Haritz Euskal  
Dantzari Taldea  
Plaza Handian (euria eginez gero Herriko  
Antzokian)  
Elgoibar Xiberoarekin auzolanean

## 25 MARTITZENA

### 18:30 BILERA

Gaia: "Nerabeen kontsumo era berriak eta  
familiaren prebentzio lana"  
Hizlaria: Hilario Garrudo psikologoa  
Ikastolako liburutegian  
DBH 1-2 mailako gurasoentzat  
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

## 26 EGUAZTENA

### 19:30 BILERA

Gaia: Einbiou Abertzaleen Plataformaren 6.  
bilera  
Kultur Etxean

## 27 EGUENA

### 15:30 IKUSENTZUNEZKOA

"Nilo, Afrikako altxorra"  
Hizlaria: Angel Cuervo  
Kultur Etxean

Antolatzailea: Debabe Euskaltegia

### 18:30 BILERA

Gaia: "Familia eta erabakiak hartzeko  
prozesua, presioei aurre egiteko erak"  
Hizlaria: Hilario Garrudo psikologoa  
Ikastolako liburutegian  
DBH 1-2 mailako gurasoentzat  
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

## 28 BARIXAKUA

### ALBERTO TORRESEN ESKULTURA ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Kultur Etxean  
Apirilaren 13ra arte

### 22:15 "ABIADURA HAUNDIKO URTE BATEN KRONIKA"

Mikel Markez abeslariaren eta Pako Aristi  
idazlearen emanaldia  
I. Bereziartua Musika Eskolako Auditorioan  
Korrika Kulturala

## AURKEZPENAK

### Mendaroko Talde Independentea

Mendaroko Talde Independentearen (MTI)  
aurkezpen ekitaldia bihar eguerdian Trinitate  
ermitan izango da. Aurtengo hauteskunderen  
begira, MTIren proposamenak zeintzuk diren  
ezagutu nahi dituzten mendaroar orori gonbitea  
egiten die bertara hurbildu daitezten. Ekitaldi  
honetan MTI bere talde argazkia aterako du eta  
bertara hurbiltzen diren guztiei hamaiketako  
eskainiko die.

## IKASTAROAK

### Internet ikastaroak emakumeentzat

Haizea Emakume Taldeak eta KZ Guneak  
emakumeei zuzenduriko internet ikastaroa  
antolatu dute elkarlanean. Martxoaren 31n hasiko  
da eta apirilaren 1n bukatu. Ordutegia:  
11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.  
Izena emateko honako telefonora deitu:  
943 74 88 28.

### Barre-terapia

Aubixa baserriak barrea terapia gisa  
erabiltzeko ikastaroa jarriko du martxan  
martxoaren 30etik aurrera. Ikastaroa antolatzen  
den 4. urtea da eta barrea bizitzako hainbat  
alorretarako mesedegarria eta osasuntsua dela  
frogatzen duen teknika ugari aztertu eta erakutsiko  
dira. Parte hartzeko 22 euro ordaindu beharko  
dira. Izena emateko edo informazio gehiago nahi  
izanez gero, 943 74 17 15 telefonora deitu.

ZINE  
kluba



## "Confusion de generos"

Zuzendaria: Ilan Duran Cohen.

Antzezleak: Pascal Gregory, Nathalie Richard, Julie Gayet.

Komedia gazi-gozo honek, tonu zinikoa oso ondo islatzen du  
elkarrizketa bikainen bidez. Zuzendariaren esanetan, aberastasun  
handiena pertsonaietan egoten da eta horregatik idatzi du pertsonaietan  
oinarritutako istorioa, hau da, filmeko gidoia nobela bat balitz bezala  
planteatzen du. Filmaren soinu bandak ere aipamen berezia merezi du,  
Jay Johanson artista suediar ezagunak konposatu baitu. Cesar sarietan  
gizonezko antzezle onenaren saria jaso zuen 2001. urtean.



## ERAKUSKETAK

Luzianoren margo erakusketa Donostian Lucio Ruiz Poveda "Luziano" (1931) margolari elgoibartarraren koadroak Donostian izango dira ikusgai apirilaren 6ra bitartean Kutxa Erakusketa Aretoan (Boulevard, 1). Madrilen bizi den artistak, besteak beste, Elgoibar agertzen den koadroak aukeratu ditu erakusketarako. Ordutegia honakoa da: Astelehenetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara eta igande eta jaiegunetan 11:30etatik 13:30etara eta 17:00etatik 21:00etara.

## KONTZERTUAK

"Serior No" eta "Aterkings"  
"Sefior No" eta "Aterkings" taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, hilak 21, Gaztetxean. Donostiako "Senor No" taldeak atera duen azken diskoa aurkeztuko du Elgoibarren. "Aterkings" taldeak egingo ditu telonero lanak. Bertan bi elgoibartarrek jotzen dute Alberto Gonzalezek eta Martxelo Mendizabalek. 2.000. urtean sortutako rockanrol taldea da, MC 5, Sonics, Wailers, etab. bezalako taldeen iturritik edaten duten 5 lagunez osatua eta beste hainbat rock talde ezberdinetatik datozenak. Gaueko 22:30ean hasiko da gazte Asanbladak antolatutako kontzertua. Sarrerak 4 euro balio ditu.

## JAIK

Nagusien Tanborradarako deialdia Aurtengo Trinitate Jaietan, ekainaren 14an, hain zuzen ere, nagusien tanborrada egiten jarraitzeko asmoa dago. Hori dela eta, bertan parte hartzea nahi dutenen bilera, martxoaren 27an, ostegunean, izango da Kultur Etxean 20:00etan. Antolatzaileek tanborradan parte hartu nahi duten neska mutil guztiak animatu nahi dituzte, nahiz elgoibartarrak nahiz beste herriren batekoak izan. Informazio gehiago behar izanez gero deitu 676 54 75 24 telefonora.

## IKUSENTZUNEZKOAK

Angel Cuerdoren abenturak Debape Euskaltegiak Kutxaren babesarekin antolatuta, Angel Cuerto abenturazale ezagunak "Nilo, Afrikako altxorra" ikusentzunezkoa eskainiko du martxoaren 27an, ostegunean, Kultur Etxean. Abu Simbeleko tenploan, Egipto eta Sudan arteko mugan hasi zuen bidaia. Nilo ibaia, munduko ibairik luzeena (6.700 km.), gertuagotik ezagutzea zuen helburutzat. Errealitatea modurik ahalik eta hurbilenean ikertzeko bere nahiak eraginda, bizikletan eta piraguan besterik bidaiatu ez duen norbaiten esperientzia ezagutu daiteke proiektzio honetan.



### ELGOIBAR, Herriko Antzokian

#### "Otra terapia peligrosa"

21, barixakua: 22:15

22, zapatua: 19:30-22:15

23, domekia: 19:30-22:15

24, astelehena: 22:15

#### "Santa Claus 2"

23, domekia: 16:30

#### "Confusion de generos" (Z.K.)

27, eguena: 22:15

#### "El jardin de la alegria"

28, barixakua: 22:15

### EIBAR

#### Unzaga

#### "Amor iso"

21, barixakua: 19:30-22:15

22, zapatua: 17:00-19:30-22:30

23, domekia: 17:00-19:30-22:30

24, astelehena: 19:30-22:15

25, martitzena: 19:30-22:15

26, eguaztena: 19:30-22:15

#### "A proposito de Selunidt"

21, barixakua: 19:30-22:15

22, zapatua: 17:00-19:30-22:15

23, domekia: 17:00-19:30-22:15

24, astelehena: 19:30-22:15

25, martitzena: 19:30

26, eguaztena: 19:30

ei du 12.cri.t li/Len erfunahliLli



## "Otra terapia peligrosa"

Zuzendaria: Harold Ramis.

Antzezleak: Robert De Niro, Billy Crystal, Lisa Kudrow.

Lehen zatiaren arrakasta ostean Robert de Niro eta Billy Cristal berriz elkartu dira Harold Ramis ("El dia de la marnota.") zuzendariaren esanetara. Paul Vitti mafioso kartzelako egonaldia amaitzekotan ari da eta FBIko agenteak zur eta lur ditu. New Yorkeko gaizkilerik ezagunenak West Side Story filmeko abestiak kantatzen ditu eta zoratu egin dela dirudi. FBIkoek kartzelatik ateratzeko trikimailu bat izan daitekeenaren susmoa dute, ordea, eta ziurtatzeko Vittiren psikoanalistari deituko diote.

N

rn



# A


ste honetako erretratu zaharra **Jose Mari Aranzamendik** laga digu. 1960. urteko San Bartolome jaietan aterata dago. "Katei" tabernan musean jokatzeko ari den lagun taldea ageri zaigu bertan. Ikusten den bezala, jan-edana egin ostean, karta jokoan keinuak eginez, oso ondo pasatu zuten.

Gogora dezagun zeintzuk diren erretratuan ageri zaizkigun lau gizon hauek: Ezkerretik eskumara: **Julian Aranzamendi "Katei"** (t), **Antonio Cendoya "Abarkas"**, **Alejandro Barrenetxea "Ondarru"** (t) eta **Manuel Peñagarikano "Kojua"**.



## ESKERTZA


*2003ko martxoaren 14an hil zen, 73 urte zituela  
JOSE ANTONIO EGUIA GARDOQUI ren sendiak,  
pertsonek egitea ezinezkoa zaigunez, lerro hauen bidez gure  
ESKERRIK BEROENA eman nahi dizuegu samin-agurra  
azaldu dezuenoi eta baita bere hiletara etorri zineten guztioi.*





# ETXEBIZITZAK ETA APARKALEKUAK

## ALTZOLA (Bainuetxearen ondoan)



**126.212,54 eurotik aurrera  
(20.00ft 001) pezetirik aurr'ra)**



FATXADA NAGUSIA

Argibide gehiago:

**ANTT inmobiliaria**

**Tel.: 943 74 80 92**

**Antonio Arrillaga kalea, 1 behea**

**AUKERA EZ1N HOBEA!!!**

•st. •

Makina  
Erremintaren  
Institutua

Instituto de  
Maquina  
Herramienta



# 1. Edizioa

# IMH 1

- **Ikasle ohi aipagarria**
- **2002-03ko irakaslea**
- **Fabrikazio Arloko ikaslea, 2002-03 ikasturtea**



## Sariak banatzeko ekitaldia

Data: 2003ko martxoaren 27a

Ordua: 12:30etik 13:30era

Lekua: IMHko areto nagusia

**Makina Erremintaren Institutua**  
**Azkue Auzoa, 1**  
**20870 ELGOIBAR**

Tel. 943 74 82 65 - 74 41 32

Faxa 943 74 41 53

[imh@fmh.es](mailto:imh@fmh.es)

[www.fmh.es](http://www.fmh.es)

Patrozinatzaileak:

**GRUPO**  
**DAN 0 BAT**

**FJL French**  
ANSOLA

**ETXE TAR**

11141 **A1A** electro-erosión

## Helburua

Makina Erremintaren Institutuan (IMH) jakin badakigu gure eskolan prestatu eta ondoren produkzio-lanetara sartu diren pertsonak garrantzitsuak direla gizartearen arlo ekonomiko eta sozialerako, ekarpen handia egiten baitiote gizarteari eta zehazki makina-erremintaren sektoreari, bai giza-mailan eta baita maila profesionalean ere. Hori dela eta, IMHk bere esker ona adierazi nahi die ikasketa garaian edota ondorengo ibilbide profesionalean nabarmendu diren Heziketa Zikloetako ikasleei.

## Hautagaien aurkezpena

IMHko ikasle, ikasle ohi, irakasle, langile eta zuzendaritzak eta baita enpresa fundatzaileek eta IMHrekin elkarlanean jarduten duten enpresek aurkeztu ahal izango dituzte hautagaiak. Hautagaiak aurkezteko epea datorren 2003ko martxoaren 14an bukatuko da.